AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

# Nota informativa
# Informazio-oharra

## *AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNAren INGURUKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA*

*Indarkeria matxista emakumeen aurka erabiltzen da, gure gizartean indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta aldatu ez ditzaten. Hori egiteko modu oso krudel bat **"indarkeria bikarioa"** deiturikoa da, emakumeari, berak gehien maite duenari min eginez, egiten zaiona, seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea eta abar hiltzeraino. Legeek jasotzen dute jada eraso mota hori, eta oso erne egon behar da hura ukatzen duten edo hari aurre egiteko baliabideak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen aurka, nahiago dute-eta, segurtasunaren gainetik, aita-ahalaren eskubidea babestu, seme-alabak arriskuan jarriz.*

*Euskal erakundeok badugu emakumeek, emakume izate hutsagatik, jasaten duten kontrola, hertsadura eta kaltea gauzatzeko modu horri eta gainerako guztiei aurre egiteko erantzukizuna; izan ere, ez dira "gertakari isolatuak", egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten baitiote.*

*Horregatik guztiagatik, **ERMUko Udalak** indarkeria bikarioaren errealitatea ikusarazteko eta behar bezala artatzeko konpromisoa hartu du, indarkeria matxistaren biktima diren adingabeekin esku-hartze goiztiarra hautemanez eta ahalbidetuz, gaiari ikuspegi integral batetik helduta, koordinazioa eta esku hartze- eta babeste-prozesuak hobetuz. Biktimen eskubideak eta ahalduntzea izan behar dira garrantzitsuenak. Ildo horretatik, gure udalerrian indarrean dauden **Indarkeria matxistaren aurkako plana eta Erakundeen arteko koordinazio-protokoloa** dira esku-hartzea babestuko duen toki-esparrua.*

*Gogoan izan laguntza- eta arreta-baliabideen sarea gure **Gizarte Zerbitzuetan (943179161)** eta **Udaltzaingoan (943176300), SATEVI** indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuan **(900 840 111) eta ZEUK ESAN (116 111)** haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuan, besteak beste.*

*Herritar guztien jarrera aktiboa behar dugu indarkeria matxistarik gabeko jendarte bat lortzeko. **Azaroaren 25erako deitutako mobilizazioetan modu aktiboan eta konprometituan parte hartzeko deia egiten dizuegu.***

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL 25 DE NOVIEMBRE DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

La violencia machista se utiliza contra las mujeres para que no desafíen ni transformen las normas de género vigentes en nuestra sociedad. Una forma extremadamente cruel de hacerlo es a través de la llamada **"violencia vicaria"**, que se ejerce sobre la mujer haciendo daño a quien ella más quiere, incluso llegando al asesinato de hijos e hijas, madre, padre, pareja actual etc. Las leyes recogen ya esta forma de agresión y es necesario estar muy alerta contra los discursos que la niegan o que cuestionan los recursos para combatirla y prefieren preservar el derecho de la patria potestad por encima de la seguridad, subestimando así el peligro de hijos e hijas.

Las instituciones vascas tenemos la responsabilidad de combatir esta y todas las demás formas de ejercicio del control, coerción y daño sobre las mujeres por el hecho de serlo, porque no son "hechos aislados" sino que responden a una situación de desigualdad estructural.

Por todo ello, el **Ayuntamiento de ERMUA** se compromete a hacer visible la realidad de la violencia vicaria y atenderla debidamente, detectando y posibilitando la intervención temprana con menores víctimas de violencia machista, mejorando la coordinación y los procesos de intervención y protección desde un abordaje integral. Los derechos y el empoderamiento de las víctimas han de estar en el centro. En ese sentido, **el Plan contra la violencia machista y el Protocolo de coordinación interinstitucional** vigentes en nuestro municipio son el marco local que facilitará la intervención.

Recuerda la red de recursos de apoyo y atención, en nuestros **Servicios Sociales (943179161) y Policía local (943176300)**, en el Servicio de atención telefónica a mujeres víctimas de **violencia SATEVI (900 840 111)** y en el Servicio de Orientación, Asesoramiento e Información telefónico y online a la Infancia y Adolescencia ***ZEUK ESAN (116 111)*** entre otros.

Necesitamos una actitud activa de toda la ciudadanía para conseguir una sociedad libre de violencia machista. **Hacemos un llamamiento para la participación activa y comprometida en las movilizaciones convocadas con motivo de este 25 de noviembre.**